

OH, EZ!

Ekain Garmendia Mujika

Anoeta. 13 urte

Oh, ez! Berriro! Honekin hirugarren aldiz da astean! Atzo plazan, gaur, berriz, parkean! Hau nazka! Urte gutxi nituenean ez nintzen hainbeste gautan lotan jaikitzen...

Gaueko ixiltasun honek... ikara sartzen dit gorputzean. Ile guztiak tente dauzkat. Ikara baino gehiago tristura esango nuke. Bakardade malenkoniatsu bat sentitzen dut, hobeto esanda. Kale honetan somatzen dudan bakardadea izugarria da. Batzuk nahiago dute pilatuta bizi, beste batzuk, berriz, bakarrik edo oso jende gutxirekin. Ez batzuk, ez besteak ezin izan ditut inoiz ulertu. Jende gehiegi badago, klaustrofobia psikiko bat, nolabait deitzeagatik, sentitzen dut; ito egin behar dudala iruditzen zait. Baina, bakarrik bizitzea okerragoa da. Norbait behar da bizitzeko, maitatzeko, edozertarako. Ezin da inor bizi maitatu gabe, eta ezin da bizi inor maitatua izan gabe. Eta batez ere: nola bizi inor edonorenganako gorrotorik sentitu gabe? Hori ezinezkoa iruditzen zait, norbaiti iseka eginik edo berataz atzetik barre eginez, ezinegon frustante bat askatzen baitut.

Benoa, ia iritsi naiz etxera. Orain ohera sartu eta ea ez naizen berriro jaikitzen bihar goizerarte.

Atea irekita dago. Eskerrak! Ez litzaidake asko gustatuko norbaiti tinbrea jo behar izatea. Etxeko giltzak! Beheko lorontzian beti uzten ditudanak, hor egongo dira... Hemen daude !Puf! Hau lasaitasuna... Beno... ohera sartu eta... Bihar arte Jon!

Mnmmnm... Iratzargailu hori... mila puska txikitari utziko nuke! Hau logalea. Jaiki egin behar ko dut, Idoiarekin gelditu bainaiz. Beno, atzoko arropa garbia dago..., huraxe jantziko dut. Gosaltzeko... Ba! Ez dut gose handirik. Ez dut gosalduko! Giltzak, dirua..., ez, ez dut ezer gehiagorik behar.

Bart azkenik lo ondo egin dut... beno! Bigarrenez ohera sartu eta gero, behintzat, bai. Haren etxea bi kale beheago dago. Mangan kafe mantxa bat daukat; hamarrak eta hogeita hamar oraindik hamar minutu daukat. Ah! Begira! Hor dator! Ondo aukeratu nuen neskaz...

— Epa Jon!

— Kaixo!

— Joango al gara lagunengana?

— Beno, bale!

— Seguruenik plazan egongo dira...

Hor daude... Iker, Mikel, Joseba eta Maite daude. Eta Nerea? Ze arraroa, beti kalean da eta.

— Kaixo!

Ikerrek zapatila berriak dauzka.

— Kaixo Jon.

— Eh, Maite, non dago Nerea? Zergatik ez ote zion deituko?

— Ez dakit, gaur ez diot deitu.

— Idoia, zergatik ez diozue kalera jaisteko esaten? Maite eta zu bakarrik, gu denokin aspertu egingo zinatekete.

— Bai, arrazoia duzu. Maite, goazen biok!

— Ez al duzue laguntzerik nahi?

Mikel beti bezala neskekin atsegina izaten.

— Eskerrak oraindik mutil atseginak daudela. Zergatik ez duzu ikasten Jon?

— Mutilok, goazen! Zer inporta zaizue? Bere etxea ez dago oso urrun.

Iker eta Joseba niri begira daude zerbait esan nahiko balidate bezala... Ikerrek burua mugituz joateko keinu bat egin dit... Berdin didala erantzun beharko... Altxatu egin da, horrek bagoazela esan nahi dit.

Azkenik iritsi gara. Espaloian lohidura gorri bat dago... Zeinena ote da? Maite ezkaratzeko telefonotik deitzera doa... Ea jaisten den. Ez litzaidake atsegina suertatuko alperrik etorri izana.

— Bai? Zein da?

— Nerea hor al dago?

— Atzo hamarrak aldera, lan egiten duen bulegotik hots egin zigun, beranduago etorriko zela esanez, baina bart ez da azaldu. Ertzaintzari deitu diogu jada, gizona eta biok oso urduri baikaude.

Honek pelikula bat dirudi... Hori esan bezain laister ertzain-auto bat etorri da. Bere argi urdin-gorriak itzalita dauzka... Jon, askotan tentela ematen duzu... Nola edukiko ditu argiak piztuta, ez badira norbaiti segika edo ez badute presarik? Hemen aspertzen ari naiz. Gainera ez da ezer garrantzitsurik izango Nerearena.

— Eh, lagunak, zergatik ez gara plazara joaten? Ez gara hemen egongo goiz gutxian.

Mutilak ados daude, baina neskei ez die atsegin handirik eman nire ideiak... Mutilak bagoaz, ez gara beti nesken atzetik ibiliko. Noski, bi hauek atzetik datoz. Banekien.

Goiza ez da oso alaia izan... Nahikoa aspertu gara gaurkoz... Orain etxera joan eta bapo jatera. Zer pasako ote zitzaion Nereari? Bai gauza bitxia. Ez zitzaion ba... Ez, seguruenik ez. Badakit azken lau hilabeteetan norbaitek gaez hiru pertsona hil dituela, baina... Eta ezkaratze aurreko lohidura? Ez zen, ba, odolarena izango, ez da hala? Harritzekoa izango litzateke. Baina hiltzailea oraino kalean egonda, inor ez dago seguru. Benga Jon, ez dira horrelako gauzak pentsatu behar. Giltza hau ez al da sarrailetik sartzen? Azkenik. Mangako kafe mantxarekin zerbait egin beharko dut. Ordu bi t'erdiak. Oraindik ordu erdia daukat. Bitartean telebista ikusiko dut.

Hirurak laurden gutxi. Ia ordua da, besteekin hiruretan gelditu naiz. Giltzak eta dirua hemen

dauzkat. Ez zait ezer falta. Ea Nerea etorri den edo bere aita-amek zerbait dakiten. Harritzekoa da, behintzat. Zer pasa lekiok gaueko ordu haietan? Ez, teori hori baztertu egin behar da; baikorra izan behar da. Begira, mutilak, Idoia eta Maite plazan daude, baina Nerea ez dago beraiei n. Hau bai dela harritzekoa.

— Eta Nerea? Non dago?

— Ez dakigu. Harrituta gaude. Goazen deilera! Maite eta ni ez gara zuek bezalako jendailarekin ibiliko.

Bere ezkaratzea hortxe dago. Lohidura gorria oraindik hor dago. Ertzaintzaren berebil bat etxebizitzaren aurrean dago. Oraintxe atera dira bi ezkaratzeko atetik. Idoia telefonora joan da.

— Nor da? -Ahotsa dardartia du, negarrez dagoela dirudi.

— Nerea hor al dago?

— Bere lagunak al zarete? Igo mesedez.

Telefonoa utzi egin du.

Bai arraroa!

— Maite eta ni bakarrik igoko gara; ez gara seiak gora igoko. Zuek hemen itxaron.

— Beno, ondo dago.

Jadanik, hamar bat minutu daramatzate goian. Zertaz ariko dira hitz egiten? Hara, hor datoz! Baina zer da hau! Idoia malkoz beterik dago eta Maite zurbil dago, ez du ematen lurrean dagoe-

nik; begirada galdurik dauka. Idoia nire besoetara bota da. Baina zer da hau?

— Nerea hil egin dute, Jon

— Zer? Nork? Nola? Zergatik?

Begitik malko lodi batzuk irteten ari zaizkit. Zer arrazoi eduki lezake norbaitek Nerea hiltzeko?

— Ertzaintzak bere gorpua aurkitu du horko mendixka horretan. Laban batek eginiko zauriak dauzka. Hil egin dute! Hil egin dute!

Zergatik? Betiko galdera. Zergatik egin lezake inork hori? Nereak ez zion inoiz inori minik egin. Ez dugu inoiz gehiago gure alboan izango. Beti egoten zen hor, animoak ematen, lur jota gure burua gaitzetsirik genuenean.

Jadanik hamarrak dira. Bost ordu daramatzat Nerea hil egin dutela jakinik, eta denbora asko pasa dela iruditzen zait. Lur jota nago, horrelako gauzek hiltzeko gogoia ematen didate. Lokartu eta ez esnatzearen ideiak nire buruari etengabeko lana ematen dio baina hori ez nuke inoiz egingo. Ohera noa, gaurko eguna oso gogorra izan da niretzat. Ikusi arte Jon, noizbait ikusiko bagara, behintzat.

— Aaaaaaah!!

Garrasi bat bukaeragabeko iluntasunean. Baina, zer zen hori? Dena ilun dago. Non nago? Ez! Idoia da! Bere gorpua odolez beterik dago. Bere begiek zergatik galdetzen didatela dirudi. Zer egin duzu Jon? Orain ulertzen dut dena. Bere

gorputza lurrera erori dan inguru guzia odolez
beterik dago. Korri! Nahi duzun tokira baina ko-
rri!

Ez dago inor. Kulpadun labana oraindik es-
kuen duzu. Ideia bat, nire pentsamendu hutsak
argitzen dituen arrazoia. Ez, hori ez. Baina zer
galtzen dut? Bera gabe bizitzeak ez du merezi. Eta
elizak arrazoi badu? Beste tokian aurkitu dezaket.
Idoia, non zaude? Etorri, mesedez, ez utzi ni ba-
karrik. Ideia bat, nire buruaz beste egin...

«Ez da hain amets ederrik,
amesgaizto ilunenak
bere edertasuna ezin ilundu diezaiokeenik»